

# GIACOMO MATTEOTTI

## Faxismoaren aurkako ekaitza inperioaren kanpoaldetik

ITALIA / Alessandro Ruta

**G**iacomo Matteotti Italia-ko edozein hiritan dago, Aostatik Sizi-  
liara edo Trentotik Sardiniara. Plaza eta kale askok faxismoaren aurre-  
neko biktimaren izena dar-  
mate.

Legebiltzarkide sozialistaren 39 urteko bizitza laburra baina bizia izan zen, eta bukaerak ere ezaugarri horiek izan zituen. Diktaduraren kontra egin zituen salaketek bere bahiketa eta hilketa eragin zuten, baina aldi berean faxismoaren benetako aurpegia eta izaera erakutsi zituzten.

Bere lurraldeko ordezkaritza harrotasunez zeraman Matteottik: Polesine, Italiako alderik ezezagun eta atzeratuenetako bat. Bertara bisita egitea ezinbestekoa da, dena bertan hasi zelako. Eta bereziki ezinbestekoa aurten, bera oroitzen duen antzezlan ikusteko aukera ematen duelako: “Il mio nome è tempesta” du izenburu (“Nire izena ekaitza da”).

### «URTE ASKOTARAKO, 9 HILKETA»

Faxismoak 1922ko urrian eskuratu zuen boterea, orain dela ehun urte alegia. “Marcia su Roma” antolatu eta gero, Benito Mussolini lehen ministro bihurtu zen. Hasiera batean oso jende gutxi uste zuen «alkandora beltz» haiek arriskua ekar zezaketenik. Komunisten kontra borrokatzen ziren eta nolabaiteko egonkortasuna mantentzen zuten, eta horregatik, leku askotan ongietorriak izan ziren, batez ere burgesen artean, jakina.

Ordezkarri sozialista hau faxismoaren lehen biktima «famatua» izan zen, 1924. urtean. Italiako lekuri pobreenetako batean jaioa zen eta Benito Mussolinik bere hilketa agindu zuen, parlamentariak salaketa ozena egin eta gero. Aurten, Italian, antzezlan batek Polesineko gizona oroitarazten du.



Giacomo Matteottiren erretratua. 39 urteko bizitza laburra bezain bizia izan zuen.  
Alessandro RUTA

Bortizkeria –tortura barne-  
erabiltzen zuten, baina hori  
ere ez zen arazo, itxuraz. Hil-  
ketak edo jipoiak erabili zituz-  
ten, Italiako iparraldean esate  
baterako, betiere «ordenaren»  
interes gorenaren alde, eta Es-  
tatuak beste alde batera begi-  
ratzen zuen.

Egoera berarentzat emanko-  
rra zela laster ulertu zuen  
Mussolinik. Erresuma ahula  
zen, gobernuek ez zuten inda-  
rrik eta Lehen Mundu Gerra-  
ren ondoren gazteek batez ere  
zerbait aldatu nahi zuten. «Ita-  
liarrak gobernatzea ez da zaila,  
erabilezina baizik». Esaldi hau  
apokrifoa da, ez dago konfir-  
matuta alegia, baina oso  
«mussolindarra» da.

Hasiera batean faxismoak  
bere alderik «eskuzabalena»  
erakutsi zuen, behintzat publi-  
koki. Pribatuan, ordenaren si-  
nonimoa indarkeriaren erabi-  
lera zen. Bi urtez benetako  
diktadurarik ez zen egongo  
ofizialki: aldaketak tantaka  
etorri ziren, 1924ko hautes-  
kunde orokorrak heldu arte.  
Urte hartan mussolinizaleek  
maskara kendu zuten, nabar-  
men: sasidemokrazia alboratu  
zuten totalitarismoari bide  
emateko.

Egoera horretan jende au-  
sarta behar zen, baina oso gu-  
txi zegoen. *Squadracce*-k, legez  
kanpoko talde faxistak alegia,  
jardun ilun eta ikaragarria  
abiatu zuen. Helburua, Musso-  
lini pozik izatea, torturaren  
edo hilketen bidez.

Kide batzuek fama handia  
eskuratu zuten, esate batera-  
ko, Amerigo Duminik. «Urte  
askotarako, Dumini: 9 hilke-  
ta», zioen bere bisita txartelak,  
besteen aurrean bere burua  
aurkezten zuenean.

Kontraesan horietan, faxis-  
moak erroak botako zituen.  
Krimena guztiz onartuta ze-

goen, ia mesede gisa aurkeztua, erregimena defendatzeko, eta aurkariak guztiz baztertuak eta jazarriak izan ziren. Agertoki honetan ia ahots bakar batek salatu zuen gertatzen ari zena: Giacomo Matteottirenak.

#### IPARRALDEKO HEGOALDEAN

Polesine Italiako lurralderik ezezagunenetako bat da. Veneto eskualdean dago, eta etenik gabeko denboraren joan-etorriaren ondorioa da.

Bere espetxea, bere konde-na, Po ibai handiaren ondoan egotea da, baita leku askotan uraren mailaren azpian ere. Rovigo probintzian Po ibaia- ren delta hasten da, hainbat eta hainbat kanal betetzen, Adriatikoa besarkatu arte. Ilargiko alde ezkutuaren antzerakoa da, non mendi bakar bat ere ez den ikusten: Alpeak eta Apeninoak urrunegi daude.

Edozein trumoi, edozein euri tanta, kezka bilaka daiteke hor. Azken 75 urteotan bi alditan sekulako uholdeak izan dituzte Polesinen, eta kalte handiak jasan. Esaterako, 1951n 101 hildako eragin zituzten.

Hezetasuna eta eltxoak errege-erreginak dira hemen. Intsektuak, iraganean, uholdeak bezain kaltegarriak ziren, gaitasun piloa ekartzen zutelako; malaria, esate baterako.

Fratta Polesine herritxorik interesgarrienetako bat da, eta Giacomo Matteottiren jaioterria izan zen: 2.000 biztanle, ordutik ordura tren bat Veronatik dator edo Verona doa, hori baino ez. Beste tokietarako loturak eskasak dira –autobiderik ez dago, errepideak zuloz beteta daude–, horretarako zenbait baliabide behar direlako, Polesinen ez daudenak.

«Gu iparraldeko hegoaldekoak gara, Italia guztiz ahaztu



Lerroon gainean, Matteottiren etxea izandakoa. Gaur egun museoa da eta hunkigarria da zein ondo zainduta dagoen ikustea.  
Alessandro RUTA

da gutaz. Ez daukagu ez inbertsiorik, ez industriarik, orain dela 50 urte bezala bizi gara», aipatu dit gizon batek, Fratta Polesineko plaza nagusian, taberna baten mahaiaren aurrean eserita dagoela, ardotxo bat edaten. Erritu aldaezina.

Gure atzean, beste kanal bat zeharkatu eta gero, bitxikeria bat: Unescoren munduko ondarearen zerrendan dagoen oroitarri bat, Villa Badoer. Nire buruari esan diot: «Ezin dut sinetsi Unescok Fratta Polesine existitzen dela dakienik». Edozein kasutan, Villa Badoer us-tekabeko maisulan bat da, Andrea Palladio artista ikaragarriak egindakoa –estilo berezi baten asmatzailea izan zen, Vicenza hiriburu duena–.

Fratta Polesine bera kale nagusi batek eta kanalek osatzen dute: *c'est tout*. Baina kale nagusi honetan beste leku inte-

resgarri bat topa dezakegu: Giacomo Matteottiren etxea izandakoa, gaur egun museoa, lorategi lasai batean kokatua.

Hiru euro balio du sarrerak, eta horrekin hiru solairuko jauregia ikus daiteke. Ordezkarri sozialistaren familia Trento aldetik lekualdatu zen hona. Ez zen aberatsa baina astiro-astiro, *piano piano*, burges mailara, herriko burges mailara, iritsiko zen.

Benetan hunkigarria da egiaztatzea nola kontserbatu duten etxea, ia bizitzeko moduan dago-eta. Sukalde erraldoi bat dago sarreran (Matteottik beste sei anai-arreba zituen-eta), baina politena egongela da, oraindik garai hartako diskoak gordetzen dituen. Giacomoren erretratua nabarmentzen da bertan. Albo batean bere liburuak daude, italieraz eta frantsesez, poli-

glota zelako: politikari eta ekonomia buruzkoak batez ere.

Matteottiren ezizena *Tempesta* zen, «ekaitza» alegia. Oidarkorra zen, bere lurraldearen alde egiteko asko zuela benetan uste zuelako. Polesineko egoera orduan, orain dela 100 urte, gaurkoa baino okerragoa zen, noski. Italian uste izan dugu Veneto aldeko guztiak pertsona alaiak direla (Venezia, Verona, Padova, Vicenza eta Dolomitetan zeresanik ez) baina Polesine beste Veneto bat da, askoz umilagoa, isiltasuna nagusi den tokia.

Kanpora joan beharrak gogor astindu zuen lurraldea. Rovigoko probintziazatik ehunka familiak itsasontzi bat hartu zuten Brasilerantz, beren jaioterriko lan baldintzak erabat negargarriak zirelako. Haien seme-alabak edo ilobak Italiara itzuliko ziren, adibidez, futbo-



lari gisa: Jose Altafini, Angelo Benedicto Sormani eta Thiago Motta famatuenak dira beharbada.

Matteottik ezin zuen errealtate latz hori onartu, eta lanari ekin zion. Faxismoa indartzen zihoan bitartean, Polesine Italiako alderik «gorriena» bihurtzen ari zen. Hori ere ondo azpimarratua dago ordezkari sozialistaren etxe-museoan.

#### DIKTADURA HEMEN DA

1924. urteko hauteskunde orokorretarako faxismoak lege berezi bat prestatu zuen: “Legge Acerbo” delakoa. Makurra zen. Besteak beste, boto gehien jasoko zituen alderdiari Legebiltzarreko bi hereneko gehiengoa emango zion. Eta alderdi hori Mussolinirena zen, jakina; boto gehien jaso zituena, besteak beste, jipoi eta beste bortizkeria mota guztiei esker.

Matteottik bazekien eta salatu egin zuen. Legebiltzarkide sozialista ez zen faxismoaren barrabaskeriak salatzeke bel-

dur. Behin baino gehiagotan, hauteskundeen aurretik eta gero, egin zuen, liburu eta artikuluen bitartez.


Agindu hau ez zen beharbada Mussoliniren ahotik aterako, baina Matteottik «burua makurtu behar zuen». Zeregin prest zuen Amerigo Dumini, 9 hilketen gizonak: hurrengoa Fratta Polesineko gizonarena izango zen.

1924ko ekainaren 10ean Giacomo Matteotti Erromako Legebiltzarrerako bidean zen. Hitzaldi gogorra prestatua zuen, baina inoiz ez zuen emango. Berari egindako azken argazkia, irribarre apal eta triste ba-

**Egoera horretan jende ausarta behar zen, baina horrelako gutxi zegoen, «squadracce» talde faxistari aurre egitea zekarrelako. Matteotti ez zen ikusten zuena salatzeke beldur, ordea**

**Mussolinik Legebiltzarrean Matteottiren hilketaren ardura onartu zuenean, egun horretan hasi zen benetako diktadura. «Duce»-ak parlamentariak probokatu zituen**

Ezkerrean, museoaren ikuspegia kanpoaldetik; eskuinean, Villa Badoer eraikina, Unescok munduko ondare izendatutako maisulana. Fratta Polesineko bi gune interesgarrienak dira. Alessandro RUTA



tekin, testamentu baten antzerakoa da.

Lekuko asko izan zituen ekintzak; askok ikusi zuten Duminiren taldeak Matteotti harrapatu eta indarrez auto batean sartu zuela. Agian bahiketa baino ez zuen izan behar, baina ibilgailu hartan faxistek labankadaz hil zuten parlamentaria eta haren gorpua Erromako kanpoaldeko zelai batean utzi zuten, handik bi hilabetera txakur batek aurkitu zuen arte.

Hasteko prest zegoen diktadura. Testuinguru hartan gogor jokatu zuen Mussolinik, 1925eko urtarrilaren 3an. Legebiltzarrean Matteottiren hilketaren ardura onartu zuen *duce*-ak eta parlamentariak probokatu zituen, heroi baten bila-edo. Baina jakina, ordurako inork ez zuen arazorik nahi,

eta horrenbestez egun hartan hasi zen benetako diktadura, benetako erregimen krudela.

Matteottiren gorpua Fratta Polesineko hilerrian dago orain. Baina eredugarria izan da haren bidea. Faxismoaren lehen martiri «famatua» izan zen ordezkari sozialista, eta hainbat liburuk bere jardueran sakondu dute.

Aurten Italian antzezlan berezi bat taularatu da, Matteottiren bizitzari buruz: “Il mio nome è tempesta”. Carmen Sepedek idatzi du, eta Emanuele Gamba da zuzendaria. Nahiz eta parlamentari sozialistaren izenak Italiako plazak edo kaleak edo monumentuak betetzen dituen, oraindik ezinbestekoa da gogora ekartzea, zer egin zuen ez ahaztea. Bai Matteotti bai bere jaioterria, Polesine.